

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Jarduera instalatzeko udal lizentzia eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2021/LACACT00031.

Eskatzailea: B06848543.

Jarduera: ibilgailuen tratamendua, bizitza baliagarria bukatzean.

Kokalekua: Oto hiribidea, 50 B 29.

Dosier-zenbakia: 2021/LACACT00032.

Eskatzailea: B01557933.

Jarduera: autoen barruko ekipamendua eta azalak, ibilgailuentzako higigarriak eta osagarriak saltzea, automozio makinak mantendu eta konpontzea.

Kokalekua: Bitoriabidea, 5 B.

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierrak aztertzerik izan dezaten — Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe), jendaurreko orduetan —, eta egokituz jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 8an

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren administrazio-burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ